BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEKO HONDAKIN ARRISKUTSUAK BILTZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZURAKOA

1. KONTRATUAREN XEDEA:

Lehiaketa honen xedea izango da tailerrean sortutako eta hainbat garbigunetan jasotako hondakin arriskutsuak biltzeko eta kudeatzeko zerbitzua kontratatzea.

Hondakin arriskutsua: hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen III. eranskinean zerrendatutako ezaugarri arriskutsu bat edo batzuk dituen hondakina, eta Europako araudian edo Espainia partaide den nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoaren arabera Gobernuak onar dezakeena, bai eta horiek eduki dituzten ontziak ere.

Zerbitzu horretan sartuko da:

- Hondakin arriskutsuak baimendutako ibilgailuetan garraiatzea, une oro aplikagarria den araudia beteta.
- Izapidetze administratiboa: onarpen dokumentuak, kontrol eta jarraipen dokumentuak, garraio jakinarazpenak, garraio gutunak eta abar.
- Hondakin bakoitzaren identifikazio etiketak hornitzea eta ontziak hornitzea.
- Hondakinak kudeatzaile baimenduaren bitartez kudeatzea.

2. KONTRATUAREN IRAUNALDIA:

Kontratazioaren xedea betetzeko aldia bi urtekoa da, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta urtebetez luzatzeko aukera izango du.

3. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN ZENBATETSITAKO BALIOA

Aurrekontuaren lizitazioa

Kontratua bi urtez betetzeagatiko lizitazioaren aurrekontua 53.988,00 eurokoa da (BEZ barne).

Eskainitako prezioan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino txikiagoa izan beharko denean, kontratua egikaritzetik eratorritako zerga eta gastu guztiak sartuko dira, eta eskainitako prezio horretan sartuko da balio erantsiaren gaineko zerga.

Kontratuaren zenbatetsitako balioa

Bi urteko gehi urtebeteko luzapen aldirako, hau da, 3 urteko aldirako kontratuaren zenbatetsitako balioa 73.620,00 eurokoa da, BEZ kanpo. Zenbateko horretan sartuta daude kontratua egikaritzetik eratorritako gastu guztiak, eta eskainitako prezio horretan ez dago sartuta balio erantsiaren gaineko zerga.

Hondakin hauek tratatzearen eta eman beharreko zerbitzuen gehieneko lizitazio banakako prezioa (BEZ kanpo):

Hondakinaren deskribapena	Gehieneko prezioa (€/tona)	Hondakinaren deskribapena	Gehieneko prezioa (€/tona)
Pintura zaharkituak	410	Olio eta gasolio iragazkiak	200
Disolbagarriak, garbigarriak edo antzekoak	325	Galgen likidoa	300
Agortutako aerosolak	1800	Sepiolita	340
Plastikozko ontziak	350	Izotz kontrakoa	230
Metalezko ontziak	270	Azidoak eta disoluzio azidoak	700
Trapuak	430	Gasolio gasolina erregai nahasketak	300
Aire iragazkiak	280	Produktu kimikoak	2400
Zerbitzuaren deskribapena		Gehieneko prezioa (€/bidaia)	
Garraioa		25	
Ontziaren deskribapena		Ontziaren gehieneko prezioa	
200 litroko bidoia		0	
Ontziaren deskribapena		Ontziaren gehieneko prezioa	
Big-bag		0	

Atal horretan jasoko da ontzien (beharrezko big-bag, 200 litroko bidoiak eta abar) garraioa eta hornidura, eta tailerrean sortutako eta hainbat garbigunetan bildutako hondakin arriskutsuen tratamendua eta kudeaketa- Horrez gain, aurrekontuaren barruan sartuko dira izapidetze administratiboa egitea eta hondakin bakoitzarentzako identifikazio etiketaz hornitzea.

Ordaintzeko baldintzak izango dira Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak ezarritakoak.

Jasotako hondakin guztien prezioa €/tonatan azaldu beharko dira.

ZENBATETSITAKO KOPURUAK

Honako hauek dira kontratuaren xede diren tailerrean sortutako eta hainbat garbigunetan bildutako hondakin arriskutsuak eta urteko zenbatetsitako kopuruak.

Hondakinaren deskribapena	**Zenbatetsitako kopurua (tona)**
Pintura zaharkituak	5
Disolbagarriak, garbigarriak edo antzekoak	2
Agortutako aerosolak	1
Plastikozko ontziak	2
Metalezko ontziak	2
Trapuak	1
Aire iragazkiak	1
Olio eta gasolio iragazkiak	1
Galgen likidoa	1
Sepiolita	1
Izotz kontrakoa	1
Produktu kimikoak	6,3
Azidoak eta disoluzio azidoak	0,5
Gasolio gasolina erregai nahasketak	1

Zerbitzuaren deskribapena	Bidai kopurua
Garraioa	50
Zerbitzuaren deskribapena	Bidoi kopuru minimoa
200 litroko bidoien hornidura	25
Zerbitzuaren deskribapena	Big-bag kopuru minimoa
Big-bag	30

Horiek dira aurreikusitako hondakinak, baina garbiguneetan utzi daitezke zerrenda horretan aurreikusi gabeko hondakinak, eta kudeatu egin beharko dira.

4. NAHITAEZKO BALDINTZA TEKNIKOAK

Jarraian azaldu dira aurkeztutako eskaintza guztiek nahitaez bete beharreko zehaztapen teknikoak.

- Enpresak eguneratuta egon beharko dira Estatuko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean (ROLECE) edo maila autonomikoko erregistro baliokidean, lehia oztopatzen duenean salbu.
- Hondakin arriskutsuak garraiatzeko garraiolari baimena aurkeztu beharko da.
- Hondakin arriskutsuen kudeatzaile baimena aurkeztu beharko da.
- 171/2004 Errege Dekretuan, 31/1995 Legearen, azaroaren 8koaren, Laneko Arriskuak Prebenitzekoaren, 24. artikulua garatzen duenean, xedatutakoa betetzea enpresa jardueren koordinazioari dagokionez.
- Eskaintza guztiek prezioak €/tona formatuan aurkeztu beharko dituzte.
- Giza bitartekoak eta bitarteko teknikoak: deskribatutako lana ondo egiteko, enpresa esleipendunak konpromisoa hartu beharko du zerbitzu honetara behar besteko giza bitartekoak, teknikoak eta materialak bideratzeko, lanak egoki eta garaiz egiteko, honako baldintza hauei jarraituz:
  - Arduraduna solaskide izendatzea.
  - Lanak egitean esku hartzen duten pertsona guztiak gaituta egon beharko dira lanak egiteko. Pertsona horiek esleipendunaren antolakuntzaren agindupean egingo dute lan, eta egiaztatutako esperientzia izan beharko dute parte hartuko duten lanetan.
- Honako alderdi hauek zehaztu beharko dira:
  - Plantillan zenbat langilek duten desgaitasuna edo zenbat dauden esklusio sozialeko arriskuan.
  - Plantillan zenbat kontratu diren aldi baterakoak.
  - Plantillan zenbat emakume dauden kontratatuta.

5. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Formula bat aplikatuta puntuak esleitzeko irizpideak:

Kontzeptu horietan, gehienez ere, 100,00 puntu esleituko dira.

5.1. Eskaintza ekonomikoa:

5.1.1-Hondakina kudeatzearen prezio unitarioak

Proposamen ekonomikoa, 60,00 puntu, guztira.

Lizitatzaile bakoitzaren eskaintza ekonomikoa, hondakin bakoitzaren prezio unitarioa zenbateko estimatuarekin biderkatuz eta horren guztien baturaz lortuko da.

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenenak, kalkulatzeko, horien arabera egingo da, interpolazio linealaren bitartez, P2 (gehieneko baja, gehieneko puntuazioa) eta P1 (zero baja, gutxieneko puntuazioa) puntuek definitutako zuzenari jarraituz, eta haiek mugatutako zuzen horren segmentuaren barruan.

Honako hauek dira aipatutako puntuak:
P2 – Eskaintza ekonomikoenari dagokio (gehieneko baja), hari gehieneko puntuazioa emango zaio, hau da, 60,00 puntu.
P1 – Lizitazio motari dagokiona, hari emango zaio gutxieneko puntuazioa, formula honi jarraituz:

Lizitazio motari dagokion gutxieneko puntuazioa:

P1 = Pmin = 60,00 x (1-(3 x Bmax))
Bmax = gehieneko baja

Bajatzat (B_i) jotzen da lizitazioaren oinarrizko prezioaren eta eskainitako prezioaren_i (BEZ barne) diferentzia, horren emaitza lizitazioaren oinarrizko prezioarekin zatituta.

Pmin negatiboa balitz, Pmin = 0.

Lehen definitutako zuzena lortzeko, onartutako eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Printzipioz, neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat jo ahal izango da proposamen guztiaren bajak gutxienez 10 ehuneko puntutan gainditzea onartutako proposamen guztien baja ehunekoen batez besteko aritmetikoa, eta hura izendatzeko kontratazio organoa ados egon beharko da, bertako lizitatzaile guztiei informazioa eskatu eta dagokion zerbitzuko aholkularitza teknikoa jaso ondoren.
Proposamenaren_i baja ehunekotzat jotzen da 100 x B_i. $_i$-ren balioa 1eta n artean dago, eta n onartutako eskaintza guztien kopurua da.

5.1.2.-Ontziak garraiatzearen prezioa

Proposamen ekonomikoa, 40,00 puntu, guztira.

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenenak, kalkulatzeko, horien arabera egingo da, interpolazio linealaren bitartez, P2 (gehieneko baja, gehieneko puntuazioa) eta P1 (zero baja, gutxieneko puntuazioa) puntuek definitutako zuzenari jarraituz, eta haiek mugatutako zuzen horren segmentuaren barruan.

Honako hauek dira aipatutako puntuak:
P2 – Eskaintza ekonomikoenari dagokio (gehieneko baja), hari gehieneko puntuazioa emango zaio, hau da, 40,00 puntu.
P1 – Lizitazio motari dagokiona, hari emango zaio gutxieneko puntuazioa, formula honi jarraituz:

Lizitazio motari dagokion gutxieneko puntuazioa:

P1 = Pmin = 40,00 x (1-(3 x Bmax))
Bmax = gehieneko baja

Bajatzat (B_i) jotzen da lizitazioaren oinarrizko prezioaren eta eskainitako prezioaren$_i$ (BEZ barne) diferentzia, horren emaitza lizitazioaren oinarrizko prezioarekin zatituta.

Pmin negatiboa balitz, Pmin = 0.

Lehen definitutako zuzena lortzeko, onartutako eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Printzipioz, neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat jo ahal izango da proposamen guztiaren bajak gutxienez 10 ehuneko puntutan gainditzea onartutako proposamen guztien baja ehunekoen batez besteko aritmetikoa, eta hura izendatzeko kontratazio organoa ados egon beharko da, bertako lizitatzaile guztiei informazioa eskatu eta dagokion zerbitzuko aholkularitza teknikoa jaso ondoren.
Proposamenaren$_i$ baja ehunekotzat jotzen da 100 x B_i. $_i$-ren balioa 1eta n artean dago, eta n onartutako eskaintza guztien kopurua da.

6. BERDINKETAK HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketarik badago, honela desegingo da:

.- Enpresa bakoitzean desgaitasuna duten edo esklusio sozialeko egoeran dauden langileen ehuneko handiena alderatuta. Lehentasuna izango du plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiena duen enpresak, berdinketarik badago.

Berdinketa ez bada desegin, lehentasuna izango du enpresa bakoitzetatik plantillan aldi baterako langile gutxien dituena.

Berdinketa ez bada desegin, hori hautsiko da enpresa bakoitzetatik plantillan emakume gehien dituenaren alde.

Berdinketak aurrera egiten badu, hori zozketa bidez hautsiko litzateke, aurreko irizpideekin ere berdinketa desegin ez bada.

7. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratuaren xedea garatuko da ingurumena errespetatzen duten metodologia, prozesu eta bitarteko materialen bidez.

8. INFORMAZIO OSASGARRIA

8.1. Formula hautatzearen justifikazioa

8.1.1.-Hondakina kudeatzearen prezioa

Formulak puntuak P1 eta P2ren arteko interpolazio linealaren bidez banatzen ditu. P1 lizitazioaren prezioa da, P1 = 60 x (1-(3 x gutxieneko baja)), eta P2ri eskaintza ekonomikoena dagokio, hau da, baja handiena duen eskaintzari 60 puntu esleituko litzaizkioke. Tarteko eskaintzei puntuak bi puntuen arteko interpolazio linealaren bitartez emango litzaizkieke, abzisetan eskaintza bakoitzaren bajak jarrita eta ordenatuetan eskaintza bakoitzari esleitu beharreko puntuak.

Hautatutako formulak eskaintza baxuenari ematen dizkio kontzeptu horregatik esleitu daitezkeen puntu guztiak, eta lizitazio prezioari ematen zaio gehieneko puntuazioa (1-(3 x gutxieneko baja) faktorearekin biderkatzearen emaitza, ehuneko gehieneko bajan adierazitakoa.

Horrela, lizitatzaileren batek hornidura lizitazioaren prezioan eskainiko balu, jasotako puntuak nabarmen baxuagoak izango lirateke ahalegin bat egin eta lizitazioarenak baino prezio baxuagoak eskainiko balitu baino.

Halaber, zenbat eta baxuagoa izan eskaintza ekonomikoena, orduan eta baxuagoa izango da lizitazioaren prezio bera duen eskaintza batek lortutako puntuazioa. Beraz, nahikoa aldentzen da alderantzizko proportzionaltasunaren erregela baten puntu banaketaren irizpidetik, puntuak interpolatzeko zuzenak pendiz nabarmen handiagoa hartzen duelako eskaintza ekonomikoena baxuagoa bada. Horrela, saritu egiten da prezio baxuagoa eskaintzen duenaren ahalegina. Erabilitako formularen beste ezaugarri bat da lizitatzaile ezberdinek eskainitako antzeko bajei antzeko puntuazioak ematen dizkiela.

8.1.2.-Ontziak garraiatzearen prezioa

Formulak puntuak P1 eta P2ren arteko interpolazio linealaren bidez banatzen ditu. P1 lizitazioaren prezioa da, P1 = 40 x (1-(3 x gutxieneko baja)), eta P2ri eskaintza ekonomikoena dagokio, hau da, baja handiena duen eskaintzari 40 puntu esleituko litzaizkioke. Tarteko eskaintzei puntuak bi puntuen arteko interpolazio linealaren bitartez emango litzaizkieke, abzisetan eskaintza bakoitzaren bajak jarrita eta ordenatuetan eskaintza bakoitzari esleitu beharreko puntuak.

Hautatutako formulak eskaintza baxuenari ematen dizkio kontzeptu horregatik esleitu daitezkeen puntu guztiak, eta lizitazio prezioari ematen zaio gehieneko puntuazioa (1-(3 x gutxieneko baja) faktorearekin biderkatzearen emaitza, ehuneko gehieneko bajan adierazitakoa.

Horrela, lizitatzaileren batek hornidura lizitazioaren prezioan eskainiko balu, jasotako puntuak nabarmen baxuagoak izango lirateke ahalegin bat egin eta lizitazioarenak baino prezio baxuagoak eskainiko balitu baino.

Halaber, zenbat eta baxuagoa izan eskaintza ekonomikoena, orduan eta baxuagoa izango da lizitazioaren prezio bera duen eskaintza batek lortutako puntuazioa. Beraz, nahikoa aldentzen da alderantzizko proportzionaltasunaren erregela baten puntu banaketaren irizpidetik, puntuak interpolatzeko zuzenak pendiz nabarmen handiagoa hartzen duelako eskaintza ekonomikoena baxuagoa bada. Horrela, saritu egiten

da prezio baxuagoa eskaintzen duenaren ahalegina. Erabilitako formularen beste ezaugarri bat da lizitatzaile ezberdinek eskainitako antzeko bajei antzeko puntuazioak ematen dizkiela.

Hondakin arriskutsuak garraiatzeko eta kudeatzeko zerbitzuaren kostuen kalkulua

Kostuak kontzeptuen arabera xehatuta	Kostuetan parte hartzearen %				Kostuetan parte hartzea, eurotan			
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Beste gastu batzuk		Zuzenekoak	Zeharkakoak	Beste gastu batzuk	
Langileen gastuak, ZUL	0,40				9.816,00	0,00	0,00	0,00
Langileen gastuak, ZEL		0,13			0,00	3.190,20	0,00	0,00
Hornidurak	0,05				1.227,00	0,00	0,00	0,00
Gastu finantzarioa		0,05			0,00	1.227,00	0,00	0,00
Ibilgetuaren amortizazioa	0,25				6.135,00	0,00	0,00	0,00
Gastu orokorrak			0,06		0,00	0,00	1.472,40	0,00
Etekin industriala				0,06	0,00	0,00	0,00	1.472,40
GUZTIRA	0,7	0,18	0,06	0,06	17.178,00	4.417,20	1.472,40	1.472,40
	1,00				24.540,00			

8.2. Lizitazioaren prezioak kalkulatzeko metodoa

Kostuak kalkulatzeko, kontuan hartu da haien banaketa, honela, eta kostua osatzen duten partiden zama: zuzeneko langileen gastua, % 40; zeharkako langileen gastua, % 13; horniduren gastua, guztira, % 5; gastu finantzarioa, % 5; ibilgetuaren amortizazioa % 25; gastu orokorrak, % 6; eta etekin industriala % 6. Hau da, zuzeneko gastuak, guztizko kostuaren % 70; zeharkakoak, % 18; eta beste gastu batzuk, % 12.